

Oraindik garaiz



NEREA IBARZABAL SALEGI
BERTSOLARIA

Auzo txikietako festetan hazitakoak gara gure inguruko asko; uda osoa muinoz muino. Ikurrina txikiz betetako zintak teilatutik teilatuta, barra bat toldo urdin edo gorri batek estalia, ermita, arratoi txakur bat bueltaka, “meza-idi-probak-mus eta briska txapelketa-bertsolariak-umeen jolasak” egitarauan. Eta umeen jolasetan aritzetik mus txapelketan parte hartu ahal izatera hamar bat urte igarotzen direnez, gazte askok alde egin dugu urteroko auzoko festetatik inguruko herri handiagoren bateko festetara.

Gazte horietako batzuk itzuliko dira, familiakoen konpromiso maila historikoak eraginda edo beharbada hautu pertsonalez, eta beraiek izango dira muntaiatz edo pintxoetz arduratuko direnak. Beste batzuk egitarau forman itzuli gara, izan bertsolari, trikitilari, abeslari bezala. Zortea da eta inplikazio emozional handia eragiten du itzultzeko aukerak, baina, oro har, zahartuz doa auzoetako jaietako bisitarien profila; bakan batzuk gara 30etik beherakoak, eta badakigu 50-70 urte bitarteko jendeari kantatzera, zerbitzatzera edo kasu egitera goa-

Herri txikietako auzoak aldaezintzat eta kontserbadoretzat hartzen baditugu, potentzial handiko esparruak heriotzera kondenatzen ari gara. Herrigintza, kultura, feminismoa, ekologismoa... Nahi dugun hori lantzeko beste guneek adina aukera eman ditzakete auzoek

zela. Eta hori aberasgarria izan daiteke, baina aztergarria ere bai –eta festa eredu bere amaierara iristen ari dela ere iradokitzen du–.

Zein gorputzaldirekin joaten gara horrelako lekuetara? Zer da “auzoko pertsona nagusi” esanda burura datorkiguna? Zer esaten diegu, zerekin egiten dugu umorea, zein erreakzio espero

dugu beraiengandik? Ez ote zaigu gertatzen betidanik gune tradizionaltzat izan ditugulako, geuk ere ez dugula hainbeste ahalegin egiten zerbait alda dadin? Izan egitaraua, izan diskurtsoa, izan kantutegia... Bertsolaritzaren kasuan ia beharrezkoa da ingurura egokitze bat, gure munduen arteko lur komun bat bilatu eta horren bidez konektatzea publikoarekin, baina zein bidezidor hartzen ditugu? Zer esaten dugu emakumez, zer gizonez, zer sexuaz, zer politikaz?

Herri txikietako auzoak aldaezintzat eta kontserbadoretzat hartzen baditugu, potentzial handiko esparruak heriotzera kondenatzen ari gara. Herrigintza, kultura, feminismoa, ekologismoa... Nahi dugun hori lantzeko beste guneek adina aukera eman ditzakete auzoek, gureagotzeko eta gaurkotzeko. Askok larri dabil-tza: talde berrien aurrekonturik ordaindu ezinda, barrako txandak betetzeko jenderik barik, lehengoari eusteko indar justuekin ezer berritzen hasteko. Pentsatu beharko genuke honen inguruan, bai udalek, bai herritarrok. Zer nahiko zenukete entzun zuei buruz 2055. urteko zuen auzoko jaietan? ●

 **ARGIA**

ZURE JENDEA
HEDABIDEAK
IRAGARKIA



Jarri zure
publizitatea
hemen!

publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak